


EUSKALTZAINDIAREN NAZIOARTEKO XV. BILTZARRA
EUSKALGINTZA XXI. MENDEARI BURUZ
(2001/IX/17-21)




Resurrección Mª Azkue
(1864-1951)

XXI. mendearen aurrean gogoeta bideratu nahi du Euskaltzaindiak euskararen iraganaz, orainaz eta geroaz. Mende aldaketa horretarako aitzakia izan daiteke, baina hiru euskalari handi gogoratu nahi ditu batez ere Euskaltzaindiak: Akademiaren sortzaile eta lehen buru izan zen Resurrección M. Azkue (1864-1951), Julio Urkixo (1871-1950) euskal filologiaren sustatzailea eta Piarres Lafitte (1901-1985) gramatikalaria eta euskal filologia eta literatura ikertzailea.



Julio Urkixo
(1871-1950)

“Euskalgintza XXI. mendeari buruz” izenburupean, euskararen historia, lexikografia, hizkuntza ereduak (estandarren eta aldaeren arteko erlazioa), gramatika eta literatura azterketak biltzen dira.



Piarres Lafitte
(1901-1985)

Euskaltzaindiak aurtengo irailaren 17-20 bitartean Bilbon eta Baionan XV. batzar nagusia burutu du. Helburu nagusia hiru euskalariri omenaldia eskaintzea izan da. Horrela, euskararentzat hain garrantzi handikoa izan den XX. mendeari begirada egin eta XXI. mende berrirako ateak ireki nahi izan ditu.

Aste osorako eratutako biltzarraren lehenengo hiru egunetako jardunak (irailaren 17, 18 eta 19koak) Bilboko *Euskalduna* jauregian izan ziren, ardatz nagusitzat hurrengo gaiok aztertu zirelarik: *Hizkuntza-ereduak* (irailaren 17an), *Hiztegigintza* (irailaren 18an) eta *Hizkuntzaren historia* (irailaren 19an). Beste bi egunetako lana (irailaren 20 eta 21koa) Baionan burutu zen, *Gramatika* eta *Literatura* arloak aztertuz.

Zer esanik ez, horrelako jardunaldietan eguna labur izaten da, bertan aurkezteko gertatutako hitzaldi eta txostenak oso ugariak izaten direlako. Horrela izan zen Bilboko batzar-egunetan. Lanak hain ugariak izanik ezin dut guztien berri eman lerro hauetan.

Horrela, bada, lerro hauetan handi-handikako aurkezpena egingo dut bertan jorratu ziren arlo nagusien berri emanez.

Lehen eguneko gaia (irailaren 17koa) HIZKUNTZA EREDUAK izan zen, eta bi hitzaldi nagusi entzuteko aukera izan genuen; egin-eginean ere, Koldo Zuazo irakaslearen: *Euskararen normalkuntzarako bideak* eta Jean-Paul Bronckart jaunaren *Les modèles de la langue et leurs mineaux de réalité*.

Horietaz gainera, baita euskara batuaren eta euskalkien arteko gorabeherak argitu nahian eginiko beste zenbait txosten ere. Niretzat interesgarrienak: Vicent Pitarch jaunaren *El caso catalá: diques político-administrativos contra el estándar*, Julian Maia jaunaren *Euskara batuaren eta euskalkien arteko barremanen bilakaera irakaskuntzaren ikuspuntutik*, Jon Agirre jaunaren *Euskalkien erabilera eta idazkera* eta Gótzon Aurrekoetxea jaunaren *Estandar eta dialektoen bateratze joerak: ikuspuntu teorikotik begirada bat*.

Gaia gaur egun ere oraindik pil-pil duguna izanik, interes handia sortu zuen bereziki Koldo Zuazoren hitzaldiak. Izan ere, egin zituen egiaztapen batzuk kezka sortu zuten zenbaitegan Euskara Batuaren premia eta ekarri dituen onurak gogoratuz hasi zen arren:

“Euskaltzaindiak Euskararen Herriari onura handia ekarri zion Euskara Batua aurkeztu zuenean, 1960an. Alderdi guztietako euskaldunek batuk besteari ulertzea, euskara esparrurik jaso eta teknikoenetan erabili ahal izatea, norbere herrialdea baino gorago badela Euskal Herri bat ikustea, erdaldunek euskaraz ikustea, geroz eta estuagok ziren euskararen mugak zabaltzea, eta, azken batean, euskara hizkuntza mailara jasotzea ekarri du Euskara Batuak. Euskarak bizirik irauteko ezinbesteko urratsa zen Euskara Batua, eta, zalantzarik gabe, bizigarri gertatu da.”

Aurreko horien ostean, baina, beste zenbait egiaztapen zalantzarik ere plazaratu zituen. Harrikada gisa hartu zituzten bertaratutako hainbatek, euskarak gaur egun dituen akats eta gaixotasun guztiak euskara batuari leporatzen zizkiola ematen zuen eta. Niri, egia esan, gogortxoegiak iruditu zitzaizkidan eta teoria maila hutsean planteatutakoak, hainbatean. Neurri handi batean orain dela urtebete inguru argitara eman zuen liburuko baieztapen gehienen errepikapen hutsa izan ziren.

Etengabeki alor hau jo eta ke jorratzen, bazterretan hautsak astintzen ari denez, beste ezeren aurretik irakatsiak praktikara eramateko eskatuko nioke. Hau da, euskalkian idazten ikusi nahi dut, ezinbestekoa baitugu hain beharrezkotzat jotzen diren eredu imitagarriak eskura izateko horretan gaituak direnek emaniko jarraibideak. Teorian defendatzen dituenak praktikara eramatea eskatuko nioke, bere bidea sinesgarri bihurtzeko.

Dena den, ez deritzot euskararen gaixotasun nagusien iturburu euskara batua izan denik, gutxiagorik ere. Gure etsairik

handienak, lehen eta orain, inguruko erdarak ditugu. Egin-eginean ere, era guztietako maltzurkeriak erabiliz, gizarte moderno honetan gure hizkuntza zokoratu eta desagertzera eramanehi dutenak.

Horregatik, gogoeta egiteko ongi hadatoz ere hurrengo berbok ez direla hainbatean egiazkoak uste dut: *“Baina hizkuntzak bizirik iraungo badu, bere “osotasunean” iraun behar du bizirik, eta hizkera estandarra edo Euskara Batua indartsu dagoen arren, hizkuntza osotzen duten hizkeretako bat besterik ez da, eta kontua zera da: gainbehera datozela gainerako hizkerak. Gainbehera dator haur hizkera, gainbehera gazte hizkera, gainbehera lagunarteko hizkera, gainbehera lanbideetako hizkerak edo argotak, eta gainbehera euskalkiak. Azken batean, beraz, -eta esan dezagun argi eta garbi- gainbehera dator oraindik euskara bera”*.

Aurreko lerroetan esaten direnak praktikan hala izango balira ere ez deritzat bidezkoa guzti horren erantzukizuna Euskara Batuari leporatzea. Badakigu ume-gaztetxoek arazo handiak dituztela euskaraz jariotasunez bizitzeko eta euskaldun zahar batek baino gehiagok erdarara jo duela, edota euskaldun berriek guk nahiko ginuekeen euskara baino eskasagoa erabiltzen dutela zenbait kasutan. Baina, onartezina iruditzen zait txantxetan ere honakorik esatea, Euskaltzaindiak antolatutako honelako batzar batean, min emateko asmoz edo egiten ez bada, behintzat: *“Euskara Batuaren izenean, orain arteko euskara bertan behera utzi, eta oso euskara arrotz eta exotikoa hedatu da, erdi-benetan erdi-txantxetan “Marteko euskara” izendatu dudana. Eta Euskara Batu horixe sartu da gure bizimoduko arlorik gebienetan”*. Penagarria, zein ederki idaz daitekeen eta idazten den Euskara Batuan ikusteko ez zirela *Euskalduna* jauregian izan, esaterako, Miren Azkaratek bere hitzaldi ederra egin zuenean!

Aurrekoa bezalako beste zenbait egiaztapen zalantzarri esan ondoren honako honetan laburbildu zuen bere hitzaldia:

"Beraz, lau gaixotasun larri ditu gaur egungo euskarak:

- 1) Hizlunak erakartzeko abalmenik ez izatea.*
- 2) Hizkuntza sortzeko sena ibartu izana.*
- 3) Guraso eta seme-alaben arteko hizkuntza lotura eten izana.*
- 4) Euskara arrotz eta exotikoa garatu izana.*

Lau gaixotasun horiek sendatuko badira, aldatu eta zuzendu egin beharko da orain arteko hizkuntza politika, eta, lehen-lehenik, hizkuntza politikaren gunea bera aldatu behar da. Herri euskaldunak izan behar dira, hemendik aurrera, egitasmo berriaren gunea, eta gunea horretara hurreratu eta ekarri behar dira herri erdaldunak, eta ez alderantziz, orain artean behin baino gehiagotan egin den bezala. Beste era batera esateko, herri euskaldunak izan behar dira eredu eta ardatza".

Hitzaldian zehar agertu zituen zenbait jarrera ezkor eta ilun baztertuz gero, bertan gogoetarako eskaini zuen abiabiderik egokiena hurrengo hitz hauetan bil dezakegu..:

"Hizkuntzari berari dagokionez, zutabe nagusi bi izango ditu egitasmo berriak:

- 1. Herri euskaldunetan bertako euskara indartzea.*
 - 2. Euskara Batua herri euskaldunetako euskararen oinarritzea.*
- 1) Herri euskaldunetako euskara indartzeaz*

Herri euskaldunetako ahozko jardunak dira, gebienbat, bertako euskararen esparrua: eskoletako Lehen Hezkuntzako zikloa, Administrazio alorreko ahozko jardunak, herri barruko irrati eta telebistak, Eliza, batzar eta hitzaldiak eta, jakina, familia eta lagunartea.

Baina jardun jasoetako hizkera ez ezik, lagunartekoa ere indartu egin behar da. Azken batean, horrelako jardunetan jolasten eta gozatzen du biztunak hizkuntzarekin, eta hizkuntzarekin jolasten denean sortzen dira hitz eta esapide berriak,

bizkuntzari bizitasuna eta erakargarritasuna ematen diotenak.

2) Euskara Batua herriko euskararen oinarritzeaz

Euskal Herri osorako egindako idatzi eta hitzaldietan, bizkera estandarra, abal denik eta berinena erabiltzea komeni da; jardun jasoko idatzi eta hitzaldietan, batez ere.

Ostera, eremu murriztagoko zereginetan, egokiagoa izan ohi da bertako bizkeratik gertu dagoena erabiltzea, edo, zehatzago esateko, eremu horretako bizkeratik abiatuta, eta eremu horretako bizkeran oinarrituta eraikitzea Euskara Batua.

Hiru helburu lortuko ditugu horrela jokatuta:

- a. Herri euskaldunetako biztunak euren buruarekin lasaiago eta ziurrago jardutea, eta lotsak eta konplexuak baztertzea.*
- b. Euren betiko bizkuntza eredutzat izanda, euskara hobea eta zuzenagoa egitea.*
- c. Euskara Batua "berea" dela, gertukoa duela sinestea. Eta ezinbestekoa da hori, euskaldun guzti-guztiek Euskaltzaindiak aurkeztutako Euskara Batua onartu, ikasi eta eroso erail dezaten."*

Egia esan, ñabardurak ñabardura, eta nola burutu proposatzen duen guzti hori, batez ere euskalkien erabilera idatziari dagokionez, garbi ikusten ez dudan arren interesgarriak iruditzen zaizkit proposamen horiek. Aspaldi defendatu izan ditugu horrelakoak adinekoen irakaskuntzan, itzulpengintzan eta hiztegigintzan jardun izan dugun hainbatek. Ez dira, bada, gaur gabeko amets gozoetan, bat-batean sortutakoak, behin eta berriro hainbat euskaltzalek gogoratutakoak baino. Honetaz, baina, saiatuko gara luzeago beste noizbait. Gaurkoz nahikoa dela uste dut.

Bigarren eguneko gaia (urriaren 18koa) HIZTEGINTZA izan genuen, eta hitzaldi nagusia Miren Azkarate euskaltzainaren

eskutik: *Hiztegigintza eta euskararen normalkuntza*. Izenburuak berak aditzera ematen duenez garrantzi handiko gaia, hizkuntzen aberastasunak hiztegietan biltzen direlako, eta beraien bidez jartzen herritarren esku, zerbait argitu edo gogoratu behar dutenean. Are gehiago, gaur egun bezala, gizarte eleanitzean biziz gero.

Miren Azkarate andereak euskal hiztegigintzaren historiaren haritik arlo honetan burututako lan ugarien aurkezpen zabala eta zehatza egin ostean, une honetan esku artean ditugun arazorik nagusienetakoa jarri zigun aurrez aurre. Hain zuzen ere euskara gizarte modernoan beharrianetara egokitu beharra. Euskaltzaindiak atera berri duen 22.000 inguru sarrera eta azpi-sarrera biltzen dituen lana eta argitalpena gogoratu ondoren, honako hau esan zigun:

“Lan hori, euskararen normalkuntzan nabitaezkoa urratsa izan da, lehenik egin beharrekoa: ondarea, tradizioa, antolatzea eta batasunerako aukerak egitea. Bada, baina, bigarren urrats bat egin beharrekoa, hiztegigintza XXI. menderako prestatu nahi badugu, funtsezkoa dena. Hitz berrien auziaz ari naiz eta, horien artean, nola ez, terminologiaz. Hizkuntza garaian garaiko beharretara egokitu nahi izan dute, besteak beste, hiztegigileek. Urte eta Larramendiren saioetatik hasita. Hortxe ditugu hiztegi elebidunak, gaztelera, frantsesa edo ingelesa begien aurrean izanik, hizkuntza horietako hiztegi edo entziklopedia erdi-mailakoen parekoak osatzeko abaleginetan, euskaraz, eurek asmatutako ordainak proposatzen dituztenak. (...) eta irizpideei dagokienez, tradizio izan bada orain arte gure kriseilu nagusia, hemendik aurrera, hitz berrien arloan, osaera eta nazioartekotasuna hartu beharko ditugu batik bat kontuan, Euskaltzaindiaren hasierako urteetatik gaur arte iraun duen eztabaidak erakusten duen bezala (nola ez aipa Altube eta Villasante), hain korapilatsua den auzian”.

Bigarren egun horretan zehar beste hainbat hitzaldi interesgarri entzuteko aukera ere izan genuen. Guztien artean Miel Goinaz jaunaren *Terminologia bide berriak* izan nuen gogokoena. Teknika berriek eskaintzen dizkiguten abantailak jarri zizkigun aurrez aurre.

Hirugarren eguneko gaia (urriaren 18koa) HIZKUNTZAREN HISTORIA izan zen, eta hitzaldi nagusiak Joakin Gorrotxategi irakaslearen: *Aintzin euskararen nondik norakoak* eta Joseba Lakarra irakaslearen: *Euskararen barne historia* izan zen.

Gaia historikoa izatean, zenbait unetan interesgarria izan arren, ez zen hain erakargarria gertatu batez ere euskararen etorkizunaz kezkatuta genbiltzan gehienontzat. Hala ere gustura entzuteko hainbat datu interesgarri eskaini zizkiguten, euskararen aztarna historikoei eta antzinako mugen nondik norakoei buruz argitasun ugari eskainiz.

Baionako egunetan (irailaren 20 eta 21ean) *Gramatika* eta *Literatura* eremuak jorratu zituzten. Bertara joateko aukerarik izan ez banuen ere, han izandakoen iritzitan oso goi mailako gogoetak egin omen ziren. Euskaltzaindiak jardunaldietako lanak argitaratzen dituenean eskuratu ahal izango ditugu bertan irakurritako txostenak eta bertako lanen emaitzak.

Hitzaldiez gainera, bi egunetan mahai-inguru oso interesgarriak izan genituen:

1. Irailaren 18an, asteartean: *Gaurko hiztegegintzaren premiak eta arazoak* jorratu ziren. Henrike Knörr euskaltzain moderatzailearen esanetara aritu ginen azken hogeitau urte hauetan arlo horretan jardun izan dugunok: Antton Gurrutxaga Elhuyar fundazioaren izenean; Adolfo Arejita Labayru eta Deustuko Unibertsitatearenean; Patxi Uribarren "Bostak Bat Kultura Elkartearen" izenean; Josu Zabaleta "Lur eta Rosetta" argitaletxeen izenean eta Piarres Charriton euskara-frantseseko hiztegiaren egilea. Talde ezberdinek burututako lanak aurrez aurre batera jartzerakoan lan izugarria egin dela ikusi ahal izan zen.

2. Irailaren 19an, asteazkenean: *Lekuko euskarak eta euskara batua: elkarren osagarri ala arerio?* izan genuen Andres Urrutia euskaltzain moderatzailearen gidaritzapean eztabaidatu zen gaia. Mahai inguru bizi-bizia gertatu zen. Hala itxaroten genuen, itxaron ere, parte-hartzaileen izenak eta jarrerak kontuan izanik. Mahai inguru horretan Xabier Kintana (Euskaltzaindia), Juan Luis Goikoetxea (Bizkaia), Juan Martin Elexpuru (Debarroa), Joxe Ramon Zubimendi (Gipuzkoa), Paskual Rekalde (Nafarroa) eta Txomin Peillen (Iparraldea) aritu ziren, nor bere ikuspuntuaren alde, jendeak egiten zizkien galderei erantzunez. Argi ikusi zen oraindik pil-pil jarraitzen duela euskara batuaren eta lekuko euskararen arteko arazoak. Orokorrean euskalkiak aztertzen egindako lana goratu eta bide horretatik jarraitu beharra nabarmendu zen, beti ere euskara estandar eta azpieuskalkien artean tirabirarik sortu gabe. Kezka nagusia euskara bera biziberritzeak sortua dugula ikusi zen.

Ikusten denez, oso lanaldi interesgarriak gertatu zitzaizkigun Euskaltzaindiak antolatutako batzarreko egunak. Esan bezala, hemen aipatu diren hitzaldiez aparte hainbat txosten irakurri ziren. Argitaratzen direnean sakonago aztertzeko abagunea izango dugu. Edonola ere, benetan pozgarria zen hainbeste euskaltzale euskara eraberritzeko lanetan buru-belarri lanean ari dela jakitca. Gure euskarak badu, oraindik zutabe sendorik, eta etorkizunari itxaropentsu aurre egiteko indarrik.

Patxi Uribarren Leturiaga